

**ITZULPENARI BURUZKO NAZIOARTEKO LEHEN
IHARDUNALDIAK**

BATZELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOAN

1992-IV-6/10

Norbaitek, behar bada, ez duela merezi hain urruti burututako ihardunaldi horiek hemen aipatzeak uste izango du. Agian, bai, Euskal Herrian edota euskal itzulpenei buruz izan baziren! Gure artean, behinik behin, ez zuten oihartzun handirik jaso komunikabideetan.

Egia esan, gaia bera ere, itxura batetan, jendearentzat nahikoa arraro xamarra da. Egin-eginean ere, itzulpengintza nahiko alor ezezaguna da. Ihardunaldi horiek hemen aipatzean, bada, alorra sakonetik aztertzeraz jo beharrean, plazaratu eta azterbidean jartzea dut asmoetan. Itzulpenei buruzko ageriko gogoeta labur bat egitea, nonbait. Honetaz ezer gutxi dakitenei ikuspuntu batzu eskaini nahi dizkiet. Besterik ez.

Aldizkari honetan, bide batez izan baldin bada ere, bi aldiz, gutxienez, aipatu izan dugu alor hau; hain zuzen ere, *Euskara eta administrazioa* (Patxi Uribarren, *Karmel* 1989-3, 46-64 orr. eta 1990-2, 69-90 orr.) eta *Interpretaritza, lanbibe berria Euskal Herrian* (Bego Montorio, *Karmel* 1990-1, 31-36 orr.) idazlanetan. Orduan zeharka aipatutakoa oraingo honetan zuzen-zuzenean aurkeztu nahi dizuet.

Eta, lehen eta behin, «itzuli, itzultzaile, itzulpen» hitzek zer esan nahi duten azalduz hasiko naiz, horrela zertaz ari garen

argiago gera dadin. Horretarako BOSTAK BAT lantaldeak kaleratutako *Eskola-Hiztegia* (1991) deritzanera joko dut dut definizio bila. Bertan honelako hau irakurtzen dugu:

Itzul(i) 2: «hizkuntza batetako hitzak nahiz idazkiak beste batetara aldatu». **Itzulpen:** «hizkuntza batetik beste batetara itzulzearen egintza». **Itzultzaile:** «lanbidez itzulpenak egiten ari den pertsona».

Ikus dezakegunez, bada, gai honen funtsezko muina edo gakoa *hizkuntza batetan aurkitzen den zerbait beste batetara aldatzean* legoke. Hori dela eta, interpretariak ere («hizkuntza ezberdinez mintzatzen diren gizataldeen harremanak gauzatzeko bitarteko edo ahozko itzultzaile lana egiten duena») multzo honetan barnebilduko lirateke, beraien lana zerbait berezia bada ere.

Bestalde, sarritan errepikatu ohi da «Komunikabideen» gizartean murgildurik bizi garela. Horrek hizkuntza ezberdinetako jendearen artean geroago eta harreman estuagoak izatea ekarri du. Gaur egun, egunero jasoten ditugun berrien iturburu ditugun telebista, aldizkari, egunkari, irrati eta abar, oso-osoan, buru eta gorputz, itzulpen mundu horren isladapean aurkitzen dira. Gehiago, oraindik, euskararena bezalako ingurune edo mundu mugatuan.

Izan ere, Euskal Herria lurraldez zein biztanlegoz txikia izanik eta bertan bizi diren gehienek, zoritxarrez, euskararik ez jakitean, guk nahi edo nahi ez, itzulpen dinamika horren menpeko dugu. Inguruko hizkuntzen sare estu eta gogorrek kateaturik aurkitzen gara.

Euskaldunok ez dugu euskara hutsean bizitzeko beharrezkoa genukeen gizarte euskaldunik. Horrek gure inguruetan sortu ohi diren kultur emaitzak (idazkiak, literatur obrak, zientzi liburuak, berrien iturriak...) beste hizkuntza batzutatik euskarara aldatzea eskatzen du.

Hainbatetan, pertsona elebidun garenok ere, geure buruan itzultzaile bihurtu gara, euskaraz bizi nahi dugunean ere, gure jakiteko iturri gehienak erdaraz izanik, beste hizkuntza batetan jasotakoa euskaratu beharra izaten dugulako.

Esaterako, hizkuntza batetik besterako aldaketa hori oso ahalegin neketsua izanik, areagotu egiten du haur-gaztetxoengan erderarako joera, erderen bidez jasotako mezua lagunei euskaraz eskaintzeak buru barruan egundoko lan neketsua burutzea eskatzen bait du.

Gaur egun, bestalde, euskarari gizarteko alor askotan ateak ireki bazaizkio ere, neurri handi batetan, handienean ez esatearren, itzulpenen bidez zabaldu zaizkio. Horrela:

- Administrazioak (maila guztietakoak) euskaraz eskaintzen dizkigun euskal testu gehienak (%95etik gora) gazteleratik itzuliak izan ohi dira.

- Telebistan eta komunikabideetan eskaintzen zaizkigun hainbat eta hainbat berri, (salbuespen gisa GUNKARLARIA aipa dezakegu) pelikula guztiak, bideo gehienak... beste hizkuntzaren batetan egin ondoren euskaratuak izaten dira.

- Irakaskuntzan gure haur eta gaztetxoek dituzten eskolako liburu eta irakurgai gehientsuenak, banaka batzu euskaraz asmatuak izan badira ere, gazteleraz eginak izan dira.

- Literatur alorrean ere, munduko obrarik nagusienak beste hizkuntzetan idatziak izan direnez euskaratzeko plangintza zabalak eratu dira: a) jadanik, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz argitaratzen ari den *Literatura Unibertsala* eta b) laster kaleratzen hasiko den *Klasikoak* deituriko 100 libururen sorta.

- Erljio alorrean ere, eliz liburu guztiak (otoitzak, irakurgaiak...) latinetik euskarara itzuliak ditugu.

- Gure artean izaten diren mahainguru, hitzaldi, kongresu, topaketa eta abarretan ere ezinbestekoa gertatzem da itzulpen

lana, une berean bat-batera interpretarien bidez eskaintzen dena zein txostenak eta ondorioak argiteratzerakoan idatziz egina.

Guzti horiek direla bide, geroago eta indar handiago hartzen ari den iharduna dugu itzultzaileena; egin-eginean erë, azken urte hauetan ugalketa handia izan duen bizibidea.

Gogora ekar dezagun, dena den, itzulpen alor hau ez dela oraingoa gure artean ezta mundu zabalean. Antzinatik ezagunak ditugu, esaterako, Bibliaren itzulpenak. Batzu, gainera, Luterok alemanieraz eginikoa, esaterako, hizkuntzaren eredu nagusi gertatzeraino.

Argi dago, bestalde, gaur egun areagotu egin direla hizkuntzen arteko harremanak. Kulturaren zein zientzien mundu zabal osoak itzulpenen zutabeetan oinarritutako eraikin bilakatu dira. Munduan hizkuntza bateratu bakarrik ez dagoenez ezinbesteko bide gertatu zaigu itzulpena herrien arteko harremaneterako.

Idazpuruan aipatu dudan Bartzelonako ihardunaldietan, bada, itzulpenen inguruan sortu izan ohi diren arazo ezberdinak eta alor horretan urteetan zehar lanean aritu izan direnen esperientziak eskaini ziren.

Benetan, kataluniarrek ohi duten bezala, ezin hobeki antolatutako ihardunaldiak izan ziren, astebete barruan itzulpen mota ezberdinak jorratu zirela. Bertaratuek aukera zabalak izan zituzten gogokoenak zituzten alorretan iharduteko, hiru gela ezberdinetan gai-ezberdinak eta, hizlariaren arabera, hizkuntza ezberdinetan (gaztelera, katalana, frantsesa, ingelesa, galego-portuges, italiara, alemaniera zirela bide) eskaini baitziren.

Arloka eta gelarik gela eskainitako txosten eta jakinerazpenez gainera, egunero, frantsesez edo gaztelera hitzaldi orokor bat izaten zen itzulpengintzako alor nagusiren bati buruzko hausnarketa eskainiz. Hitzaldiok mundu zabalean oso ospe handiko diren hizlariak emanak izan ziren.

Bitxekeria gisa, Euskal Unibertsitateak joandakoek ez bezala, Hungariako unibertsitate batetan irakasle den Karoly Morvay hungariar euskaldunberriak, adibideak eskaintzerakoan euskarazkoak erabili zituela aipa daiteke.

Laburbildurik honako antolakuntza izan zuten ihardunaldiek: bost egunetan zehar, 47 txosten (40 minututakoak) 85 jakinerazpen (20 minututakoak, 4 hitzaldi orokor (120 minututakoak) eta mahainguru bat, hizkuntza zein gela ezberditan banatuta, partehartzaile bakoitzari nahi zuenera joateko aukera emanez.

Gaiei zegokienean honako zutabe nagusi hauen inguruan antolatuta egon zen: a) Informatika, itzulpengintzarako ezinbesteko tresna. b) Itzulpengintzari buruzko teoria. c) Itzulpengintzari buruzko didaktika. d) Itzulpen teknikoak. e) Itzulpenak eta ikus-entzuteko baliabideak. f) Literatur testuen (kontaketa eta olerkien) itzulpena.

Ona hemen bertan jasotako zenbait baieztapen:

- Gaur egun informatika itzultzailearen «itsumutilik» onena bilakatu da. Oso garrantzitsua gertatzen da informatikak eskaintzen dituen baliabideak ezagutzea, horrek hainbatetan errazten baitu lana eta hobekiago burutzea ahalbideratzen. Nahiz eta oraingoz hizkuntza batetik bestera itzulpen automatikoak egiteko aukerarik ez izan, informatikak aparteko laguntza eman diezaiolke itzultzaileari.

- Itzultzaileak ahalik eta ondoen ezagutu behar du jatorrizko testuaren esanahia. Itzultzen hasi aurretik ongi gertatu behar da testua, zailtasunak ikusi eta irtenbide egokiak bilatzeko.

- Edozein itzulpen egiterakoan: a) prestatu testua, dauden eragozpenak azpimarratuz, b) Zehaztu erizpideak eta itzuli beti arau berdinak jarraituz (batez ere taldean egiten den kasuan) eta c) Berrikusi kalitatea kontrolatzeko norbera hartzailearen lekuan jarri eta testua jasoz.

- Testu barruko hitz guztiak banan-banan hartzea baino garrantzitsuagoa da testuinguruan ager daitezkeen berezitasunez jabetzea. Testuaren ulermenak hitzez-hitzezkoa baino gehiago testuingurukoa izan behar du.

- Lehen urratsa jatorrizko testua ongi ulertzea denez, testuak egokiro eskainia izan behar du. Horrela bakarrik interpretatu eta jakoko dira egokiro bereizgarritasunak.

- Itzulpena aurkeztean hartzailearen ezagupen maila hartu behar da kontutan, hau da, noiz, non, zertarako eta norentzat idatzia izan zen testua, helburuen arabera irtenbidea lortzeko.

- Jatorrizko testua, beste kultur giro batetakoak izanik, hartzailearentzat ulergaitz gertatzen denean, zilegizkoa litzateke egokitzapena egitea hartzaileari ulergarriago zaion kultur datu berriren bat erantsiz.

- Itzulpengintzak duen arazorik gorriena, zenbateraino egon behar duten testu biak elkarrekin hitzez hitz uztarturik erabakitzea da. Edonola ere, garrantzitsuena, beti, mezuaren sakoneko esanahia zaintzea izango da.

- Hitzez hitz itzultzeak, sarritan, ulertezin edo nazkagarri bihurtzen du itzultzen den testua, era berean, zenbait interferentzia tartekatzea ekarri ohi duelarik. Hizkuntza bakoitzak dituen bere adierazbideak erabili behar ditu, jatorrizko hizkuntzari gehiegi lotuta egon gabe, batez ere esakune eginetan. Ahalegin handia egin behar da, jatorriko hizkuntzaren morrontza estu horretatik buruak askatzeko, beti ere, jatorrizkoaren esangurari iruzur egin gabe.

- Hizkuntza biak ongi ezagutzeaz gainera kultur kodeak ere ezagutu behar ditu itzultzaileak, erregistro ezberdinen ezagutza maila egokia lortuz. Jatorrizko hizkuntzako modismo eta esakune bereziak egokiro itzuliz hartzaileak gauza bera hartzea ahalbidieratu behar da.

- Itzulpen alorrean azterketa gutxiegi egin da esakune eginak, modismoak eta errefrauek biltzeko eta argitzeko. Esaldi eginetan, batzutan aldaketak egin daitezke baina gehienetan kontu handiz jokatu behar da. Barruan aldatu ezin diren elementuak egon daitezke. Esaldi eginetan ere hizkuntzaren arau orokorrak betetzen dira.

- Itzulpen moten arabera, metodo egokiak hautatu behar dira. Ezin dira berdin itzuli, arazorik ez duen administrazio testu arrunta, legezko ondorioak dituen testu teknikoa, birsorkuntza eskatzen duen olerkia, lekuz eta irudien eraginez muga estuak dituen pelikulako elkarrizketak edota neurri zehatz batzutan jarria delarik bat-batean ikusi, irakurri eta ulertu behar den errepedeko mezua.

- Hori dela eta ezinbestekotzat jotzen da itzulpen teknika bakoitzaren baliabideak aztertzea, hau da, praktikan itzulpena ongi egiteko beharrezko den gutxienezko teoria egokiro menperatzea. Dena den, itzulpegintza *zientzia* baino gehiago *praktika* mailako zerbait litzateke.

- Itzulpen testu bakoitzak bertsio bat baino gehiago onartzen ditu. Ez dago inoiz gainditu ezin denik edo hoberenik, ongi, txarto, hobeki eginiko kasu konkrituak baino.

- Jatorri bereko antzerako hizkuntz senideen artean eta hitzik arruntenetan ere, ez dira berdin itzultzen hitzak barnesarturik aurkitzen diren tesuinguruak baldintzaturik izaten direlako.

- Ezeren gainera helburu komunikatzailea salbatu behar da. Itzultzea, batez ere, testua egokiro erabiliz egiteko, komunikazio egintza da. Joera komunikatzaileak izan behar du nagusi, literaltasuna baztertuz. Itzultzaileak batez ere erredaktatzaile eta komunikatzaile izan behar du.»

Beste hainbat eta hainbat jakingarri ere aipatu ziren ihardunaldietan baina ezin guztiei lekua egin hemen. Besterik

ezean, itzulpen mundu honek ere badituela bere zailtasunak aditzera emateko jaso ditut hemen aipatu berri ditugun baieztapen orokor horiek.

Idazlantxo honen bidez, Bartzelonan izan diren ihardunaldien berri emanez, arazoa gurea ez ezik beste hizkuntzena ere badela gogora ekarri nahi izan dut. Eta, era berean, oraingoz «itsumutil» hau euskara eguneratu eta iraupen bidean jartzeko ezinbesteko tresna badugu ere, kontu handiz eta ardura osoz jokatu behar dugula gogoratu.

Egin-eginean ere, itzulpen kopurua hainbesteraino ugaritu den une honetan, presaka euskaratu beharrak zein euskaratzeko baliabide nahikoa ez izateak ondorio latzak sor diezazkioke euskarari, bere-bereak dituen zenbat baliabide zokoratzea ekarriz.

Izan ere, penagarria ez ezik deitoragarria litzateke, itzultzaileok behar adineko ardurarik hartzen ez dugulako erderen eraginez euskararen berezko jatortasuna kutsatzea. Agian, gaitza bera baino kaltegarriagoa sendagaia!

Patxi Uribarren